



2024 GABONETAKO ESKAPARATE LEHIAKETAREN OINARRIAK	BASES PARA EL CONCURSO DE ESCAPARATES DE NAVIDAD 2024
1. Lehiaketa honetan parte hartu dezakete Arrasateko merkataritza, zerbitzu eta ostalaritzako establezimendu guztiek.	1. Podrán participar todos los establecimientos de comercio, servicios y hostelería de Mondragón.
2. Izena emateko epea bukatuko da 2024ko abenduaren 9an.	2. El plazo de inscripción finalizará el 9 de diciembre de 2024.
3. Lehiaketan parte hartzeko, izena eman beharko da BAZen edo udal webgunean.	3. Para participar en el concurso será obligatorio inscribirse en el BAZ o web del Ayuntamiento.
4. Erakusleihoak jarrita egongo dira gutxienez abenduaren 10tik urtarrilaren 6 arte.	4. Los escaparates estarán expuestos por lo menos del 10 de diciembre al 6 de enero.
5. Epaimahaiaren sariak erabakitzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:	5. Para el fallo de los premios del jurado se tendrán en cuenta los siguientes criterios:
<ul style="list-style-type: none">○ Erakusleihoan Gabonetako giroa islatzea○ Irudimena, originaltasuna, lanketa, estilismoa ...○ Mezua.	<ul style="list-style-type: none">○ En el escaparate se reflejará el ambiente de Navidad○ Imaginación, originalidad, trabajo realizado, estilismo ...○ Mensaje.
6. Derrigorrezko betebeharrak izango dira:	6. Serán requisitos obligatorios:
<ul style="list-style-type: none">○ Euskararen erabilera.○ Sexu edo genero diskriminaziorik ez egotea.○ Derrigorrezkoa izango da dendako salgaiak erakusleihoan jartzea.	<ul style="list-style-type: none">○ El uso del euskera.○ La ausencia de discriminación por razón de sexo o género.○ Será obligatorio colocar en el escaparate productos de venta del establecimiento.
7. SARIAK	7. PREMIOS
<ul style="list-style-type: none">1. saria 1.000 euro2. saria 700 euro3. saria 600 euro	<ul style="list-style-type: none">1. saria 1.000 euro2. saria 700 euro3. saria 600 euro



<p>4. saria 500 euro</p> <p>Herritarren saria 500 euro</p> <p>Haur eta gazteen saria 500 euro</p> <p>Aipamen berezia 200 euro</p> <p>Aipamen berezia 200 euro</p> <p>Aipamen berezia 200 euro</p> <p>Aipamen berezia 200 euro</p>	<p>4. saria 500 euro</p> <p>Herritarren saria 500 euro</p> <p>Haur eta gazteen saria 500 euro</p> <p>Aipamen berezia 200 euro</p> <p>Aipamen berezia 200 euro</p> <p>Aipamen berezia 200 euro</p> <p>Aipamen berezia 200 euro</p>
<p>“Herritarren saria” bozkatzan dutenen artean hamar bono zozketatuko dira, 120 eurokoak, Arrasateko edozein komertziotan gastatzeko.</p> <p>“Haur eta gazteen” saria bozkatzan duten ikasleen artean (16 urte arte) bost bono zozketatuko dira, 50 eurokoak, Arrasateko edozein komertziotan gastatzeko.</p>	<p>Entre las personas que voten el premio “Herritarren saria” se sortearán diez bonos de 120 euros, para consumir en cualquier comercio de Arrasate.</p> <p>Las personas que voten el premio de “Haur eta gazteen saria” (hasta 16 años) se sortearán cinco bonos de 50 euros, para consumirlos en cualquier comercio de Arrasate.</p>
<p>8. Epaimahaiaren erabakia aldezina izango da eta hedabideen bitartez jakinaraziko da bere garaian. Bestalde, epaimahaiaren lana errazteko, eskatzen da erakusleihoak argizatuta edukitzea lanegunetan gaueko 21:00ak arte. Sariak banatuko dira 2024ko abenduaren 20an.</p>	<p>8. El fallo del jurado será inapelable y se dará a conocer a través de los medios de comunicación. Por otra parte, para facilitar la labor del jurado, se solicita tener iluminados los escaparates hasta las 21:00 horas. El reparto de premios se llevará a cabo el día 20 de diciembre de 2024.</p>
<p>9. Epaimahaiak aukera izango du sariak hutsik uzteko.</p>	<p>9. El jurado podrá dejar desierto el premio.</p>
<p>10. Epaimahaia honela osatuko da:</p>	<p>10. El jurado estará compuesto por:</p>
<ul style="list-style-type: none"> ○ Tokiko Garapenaren saila edo eta batzordea. ○ Aditu bat apainketan, diseinuan edo eskaparatismoan. ○ Merkatarien elkarteak. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Departamento y/o comisión de Desarrollo Local. ○ Una persona experta en decoración, diseño o escaparatismo. ○ Asociación de comerciantes.
<p>11. “Herritarren saria” eta “Haur eta gazteen saria”ren bozketa modu</p>	<p>11. La votación de los premios “Herritarren saria” y “Haur eta gazteen</p>



<p>telematikoa egingo da udal webgunearen bitartez. BAZen ere egin daitez bozketa telematikoa bertako langileen bitartez.</p>	<p>saria” se realizará telemáticamente a través de la página web municipal. Se podrá realizar el voto telemático en el BAZ.</p>
<p>12. “Herritarren saria” eta “Haur eta gazteen saria” udaleko webgunearen bitartez bozkatuko dira abenduaren 11tik 17ra.</p> <p>Herritar bakoitzak boto bakar bat eman ahal izango du.</p>	<p>12. Los premios de la “Herritarren saria” y “Haur eta gazteen saria” se votará en la web del ayuntamiento del 11 al 17 de diciembre.</p> <p>Cada persona podrá dar un solo voto.</p>
<p>13. “Herritarren saria” bozkatu ahal izango dute 16 urte edo gorakoek eta “Haur eta gazteen saria” 16 urtera arteko ikasleek.</p>	<p>13. El voto del premio “Herritarren saria” lo podrán realizar la ciudadanía de 16 años o mayores, y “Haur eta gazteen saria” el alumnado menor de 16 años.</p>
<p>14. Establezimendu batek ezin izango du sari bat baino gehiago irabazi, hala bada, epaimahaiaren saria jasotzen duten lehenengo lauak, “Herritarren saria” eta “Haur eta gazteen saria” zerrendatik kanpo geldituko dira.</p> <p>“Aipamen berezia” sariak, emango zaizkie hurrenkeran, epaimahaiaren aburuz, boto gehien izan duten hurrengo lau hautagaiei.</p>	<p>14. Un mismo establecimiento no podrá optar a más de un premio, por ello, los cuatro primeros premios del jurado quedarán excluidos de la lista de premios “Herritarren saria” y “Haur eta gazteen saria”.</p> <p>Los premios “Aipamen berezia” se otorgarán, por orden, a los cuatro candidatos, que a juicio del tribunal, hayan obtenido el siguiente mayor número de votos.</p>
<p>15. Lehiaketa honetan parte hartuz gero, oinarri hauek onartzen dira.</p>	<p>15. La participación en este concurso supone la aceptación de estas bases.</p>